

Jarduerak

Gure dendan salduko dugun gehiengoa beste markek ekoiztuko dute baina oso garrantzitsua izango da gure kolezio propioa eta arreta berezia eskainiko diogu. Arropa eta produktuak kantitate izugarri handitan erosiko ditugunez, fabrika batek egingo da produktuaren ekoizketaren kargu.

Gure eginkizunak hurrengo hauek izango dira. Alde batetik, gure bezeroek prestatutako diseinuekin nahi duten arropa prenda modifikatuko dugu eta bestetik, fabrikara agindutako arropa diseinuak salduko ditugu, hau da, gure diseinu propioak. Bezeroren batek arazoren bat badu gu arduratuko gara arazo hori konpontzeaz eta denok irabazten ateratzeaz.

Gure empresak on-line erosteko aukera ematen du, norbaitek familian itsu bat badu eta opari berezi bat egin nahi badio, aukera onenatariko bat da.

Gure empresak saltzen duen arropa pertsona guztientzako da, edonork erosi dezake baina itsuei zuzenduta dago.